

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea etxeko laguntza zerbitzuaren ordenantza fiskalaren aldaketari

Udalbatzak, 2025eko otsailaren 18an egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespena ematea Kanpezuko udal etxeko laguntza zerbitzuaren ordenantza fiskalaren aldaketari. Erabaki hori jendaurrean egon eta haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko bihurtu da, bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49.c) artikuluan xedatutakoarekin.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan eta TAOLek 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, I., II. eta III. eranskinak aldatzea proposatzen da, honela:

#### I. ERANSKINA

##### PREZIO PUBLIKOAREN ZENBATEKOA

1. tarifa. Etxeko laguntza zerbitzua: 6,66 euro/ordu.

#### II. ERANSKINA

##### AHALMEN EKONOMIKOA NAHIKOA DEN ZEHAZTEA

I. eranskinetako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, zerbitzu baten erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa nahikoa dela ulertuko da eranskin honetan ezarritako kasuetan.

Hobariak zehazteko 5.1 artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela ulertuko da ahalmen ekonomikoa, III. titulua-ren I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatu, hilean 1.599,00 eurokoa edo handiagoa bada.

Era berean, behar besteko ahalmen ekonomikoa dagoela ulertuko da pertsonaren ondare konputagarria 50.000,00 eurokoa edo handiagoa bada, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulatu ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan ezarri diren mugak baino txikiagoa izan.

#### III. ERANSKINA

##### HOBARI APLIKAGARRIAK

I. eranskinetako prezio publikoen indarraldian, prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikoa ez duten pertsonen honako hobari hauek aplikatuko zaizkie, zerga ordenantza honetako 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Zerbitzu horiek jasotzeagatik ordaindu beharreko banako prezioaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako baremo taula honetan ageri diren hileko kopuruak aplikatu behar dira, familiaren hileko ahalmen ekonomikoa oinarritzat hartuta:

| FAMILIAREN AHALMEN<br>EKONOMIKOA<br>(EUROTAN) | EURO ARTE | ZENBATEKOA       | GAINERAKOA,<br>EURO ARTE | EHUNEKOA  |
|-----------------------------------------------|-----------|------------------|--------------------------|-----------|
| 500,00 arte                                   | 0         | 0                | 500,00                   | 0,22      |
| 600,00                                        | 500,00    | 1,10             | 100,00                   | 0,33      |
| 700,00                                        | 600,00    | 1,43             | 100,00                   | 0,43      |
| 800,00                                        | 700,00    | 1,86             | 100,00                   | 0,54      |
| 900,00                                        | 800,00    | 2,40             | 100,00                   | 0,65      |
| 1.000,00                                      | 900,00    | 3,05             | 100,00                   | 0,82      |
| 1.100,00                                      | 1.000,00  | 3,87             | 100,00                   | 0,98      |
| 1.200,00                                      | 1.100,00  | 4,85             | 100,00                   | 0,60      |
| 1.300,00                                      | 1.200,00  | 5,45             | 100,00                   | 0,43      |
| 1.400,00                                      | 1.300,00  | 5,88             | 100,00                   | 0,33      |
| 1.500,00                                      | 1.400,00  | 6,21             | 100,00                   | 0,22      |
| 1.599,00                                      | 1.5000    | 6,43             | 99,00                    | 0,22      |
| 1.599,00 eurotik gora                         |           | Gehieneko tarifa |                          | 6,66 euro |

Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, lehenbizi hileko orduen kopurua zehaztu behar da, eta horretarako, asteko orduen batura bider 4,3 egin behar da.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko apirilaren 11

*Alkatea*  
*IBERNALO BASTERRA TXASKO*